

ETORKINEI ESKER ETXALDEAK BIZIRIK MANTENTZEKO INIZIATIBAK: BI NORABIDE DITUEN ELKARTASUNA

Paris dute amets halabeharrez Frantziako Estatura arribaturiko papergabe anitzek. Ordea, ez dute irudikatzen zutena kausitzen eta gogorra dute hiriburuko zurrumbiloaren erdian iragan beharra. Paris inguruko baserri batzuetan bestelako bide bat gogoetatzen eta asmatzen dabilta batzuk, etxaldeko aktibitatean juntatuz paperdunen zein papergabeen jakintza, gogo eta gogoetak. Onura aldetik aberatsa dela diote: laborantza herrikoia bermatzeaz gain, sektoreko langile eskasiari erantzun diezaioke, eta gainera, elkarbizitza adibide eder bat ematen dute puztuz doan eskuin muturraren parean.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

2030ean laborarien erdia erretretan izanen dugunez segida antolatze behar gorria daukagu. Gainera, krisi klimatikoak behartzen gaitu nekazaritza ereduaz gogoetatzera, eta eredu industrial laborantza herrikoiaz ordezkatzera, horrek pertsona gehiago eskatzen dituenean. Nola ez, eskuin muturraren gorakada ezagutzen dugun honetan gurean ixteko joerarekin bukatze beharra daukagu” azaldu dio Tarik Belkadik *Le Chiffon* komunikabideari. A4 elkarteak aurkeztzen dabil –A4 edo Association, Accueil, Agriculture, Artisanat [Elkartea, Harrera, Laborantza, Artisautza]–. Krisi bakoitza banan-banan begiratzen dabilta, guztiak elkarharremanean jarritz eta guztiei begira landuriko erantzuna asmatu nahian. Zein dute soluzioa? husteratzen doazen ba-

serriak etorkinei bideratu, elikadura burujabetzaren eta agroekologiaren izpirituan.

Reprise de terres par les migrants: la relève paysanne est là? (Lurrak etorkinek berriz hartzea: Laborantzarako erreleboa hor ote?) erreportajea irakurri dezakegu www.communaux.cc gunean, zeinetan Paris inguruko bi ekimenen berri jasotzen dugun: La Ferme de Combreaux [Combreaux-eko Baserria] eta La Ferme des Monts gardés [Babesturiko menditxoaren Baserria] etxaldeak. Hiriburuko baldintza gogorak utzi eta bertan bide berri bat garatzeko aukera daukate paperik gabeko etorkinek.

Elkarlanean dabilta A4 elkartearekin: “A4rekin harremanetan jartzen diren baserri gutxiegi daude oraindik, horregatik dira bi horiek balio handikoak guretzat. Harremantze hori egite-

ke gelditzen da”, Belkadik dioenez. Hala ere, ez dira zerotik abiatzen, badaudelako guneka gisa bereko dinamikak. JRS Errefuxiatuentzako Zerbitzu Jesuita egitura dabil bi aldean arteko lotura egiten, denbora mugatu bateko lanaldiak bideratuz etorkinei. Horrez gain, lanaren truk aterpea eta jakia proposatzen duten baserri ekologikoen sarea da Wwoof izeneko, eta bertan garatu dute “elkartasunezko wwoofing-a”, papergabeen zein asilo politikoa galdeztzen dabiltzan eta laborarien arteko trukaketak ahalbidetzeko.

Berez badaude ekimenak, baina laborantza benetako ogibide –eta beraz paperak lortzeko bide– kokatzen dutenak gutxiegi daude oraindik. A4 elkartearen gomita esku artean, horretaz gogoetatzen aritu ziren irailean hamabost bat papergabe, ikerlari eta laborari,



BIDEA ELKARREKIN ERAIKIZ

Iraillean batu ziren Paris ondoko La Courneuve herrian, etxalde hutsak etorkinen esku uzteko erronkari buruz taldean gogoetatzeko. Argazkia: Le Chiffon.

Parisetik hurbil dagoen La Courneuve herrian. Ondokoa irakurri zitekeen hitzorduaren aurkezpenean: “Apustua bikoitza da: alde batetik, jatorrizko herrialdeak utzirik, beren nahien, beharren eta bizi-esperientzien araberrako etxebizitza eta lanpostuak aurkitzeko zailtasunak dituzten pertsonen dilema eta zalantzei erantzutea. Bestalde, erakundeek nekazariei ematen dizkieten laguntzen gainbeherari, nekazaritzaren eta artisau-lanbideen desagertzea eta agroindustriak eta hirigintzak ondorioztatu lurren galerari erantzutea”.

BASERRIAK HUTSIK, ETA ALTA, ESKURAGAITZAK

Segidarik gabeko etxaldeek kopurua kezkarria bezain problematikoa dugu: norabidea ez bazaio aldatzen,

**Baserriak lortzeko
traba anitz bada:
dela ondasuna
eskuratzeko dirutza;
inguruko etxaldeek
handitzeko gosea;
bertakoa ez denarekiko
mesfidantza; traba
administratiboak**

Europako baserriak 10 milioi izate-tik 3,9 milioi izatera pasako dira 2040rako –aitzinetik ere, 10 milioira gutxitu ziren 2003tik 2016ra-. Batez beste egunero 27 etxalde dira desagertzen Frantziako Estatuan, eta maleruski ez da Mendebaldeko salbuespen bat.

Hutsik izanik ere, baserria lortzeko traba anitz bada: dela ondasuna eskuratzeko dirutza; inguruko etxaldeek handitzeko gosea; bertakoa ez denarekiko mesfidantza –are gehiago pertsona arrazializatua denean– edota traba administratiboak. Baina gaitz sako-nago bat ere bada: eredu industrialak daukan babes egituratu eta antolatua.

Agroindustriak lurak behar ditu, eta traban ditu baserri ttipi aktiboak. www.greenwashingeconomy.com gu-neko *Eliminer l'agriculture industrielle est une question de survie* (“Biziraupen



Wwoofing SAREA

Laborantza ekologikoan dabilzan etxaldeen osatzen dute Wwoofing sarea, eta jendea aterpetzen dute lanean emandako laguntzaren truk. Papergabeak aterpetzeko barne-taldea ere du sareak. Argazkian ageri da gisa horretako esperientzia bat. Iturria: Infomigrants.

kontu bat da laborantza industria-la ezabatzearena”) artikuluan datu esanguratsuak aurkitu ditzakegu: “Munduan kontsumituriko elikagaien %70-75 ekoizten du laborantza herrikoia, landutako lurren 1/4ean eta laborantza industrialak %25-30 landutako lurren 3/4ean. Gainera, ekoizpen industrialaren %44 animalien elikadurarako da, %23 galdu egiten da (garraioan, biltegietan, edota kontsumitzaileen zakarrontzietan), %9 bioerregai gisa doa; eta %24 bakarrik erabiltzen da zuzenean plateretan, hau da, ekoizten den munduko janariaren %6-7”. Hots, lur anitz behar izan arren, ez du elikadura burujabetza bermatzen.

Lurak eta baserriak eskuratzeko bideei buruz gogoetatzen dabilta A4ko kideak: langile kooperatiba bat edota juridikoki papergabeak kontratatzeako eskumena bermatzen dien OACAS Harrera Komunitarioko eta Jarduera Solidarioetako Erakunde izaera osatu nahi lukete. Lurak espekulazio joeratik ateratzeko asmoz dabilen Terre de Liens fundazioak lortu eremuak

Wwoofing sarearen baitan “Elkartasunezko wwoofing-a” garatu dute, papergabeen zein asilo politikoa galdetzen dabilzanen eta laborarien arteko hartu-emanak bideratzeko

erabiltzea litzateke egingarriena –Ipar Euskal Herriko Lurzaindiaren lan bera egiten dabilen egitura–.

2020an agerturiko COVID-19ak eragindako muga hestearekin kon-

turatu ginen zein heinetaraino ez daukagun laborari nahikorik Europa mendebaldeko herrietan. Alarma piztu zuten agroindustrial handiek, sasoi oro bertaraten dituzten etorkinek ezin izan zutelako etorri. OFFI immigrazioaz arduratzen den Frantziako egituraren arabera, Frantziako etxaldeetako langileen %80 da atzerritarra. Behar ordurako etorritarazi eta ondotik bere herrira bidaltzen den eskulan merkea izan ohi da, edota paperik gabe Europara sarturik, biziraun nahian dabilena.

Berriki, abenduaren 15ean, bi urteko kartzela zigorra bildu du Britainiako Prestavic agroindustrialaren nagusi Marc Szambelanek, “giza tratua” egiteagatik, hamazazpi papergabe esklabo gisa tratatzeagatik –iker-keta judiziala abian zela, horietariko batek bere buruaz bertze egin zuen–. Oilaskoen hazkuntza eta bilketan berezituriko enpresa alimalea da eta bertan lanean hasi ziren, nagusiak hitzemanik lanaren truke egonaldi baimena eskuratuko zutela. Baina gezurra zen, eta lan eta bizi baldintza



PAPERGABE IZATEAK DAKARREN ERREALITATEA

Papergabeak kontratatuz, beraien eskubideak urratzen dabilta nagusi batzuk. Tartean, agroindustriako Prestavic, abenduaren 15ean zigorturikoa "giza tratua egiteagatik", hamazazpi papergabe esklabo gisa tratatuz. Argazkian, epaiaren eguneko elkarretaratzea, langileen alde.

miserableetan atxiki zituen 2018tik 2020ra: gau eta egun lanean, tartean bizpahiru oren lo eginez; irainak, etengabe; mehatxuak eta zigorrak kexatzen zenari; garratoi eta labezomorroz beteriko bi apartamendu zikinetan preso, berogailurik eta argirik gabe; lan istripu andana pairatuz, baina inolako bazarik edota mediku-bisitarik gabe, eta beste. Horrelako errealitatea ekar dezake papergabe izateak, babesik ez ukanik, horietaz baliatzen dabil-

**Munduan landutako lurren
1/4an elikagaien
%70-75 ekoizten du
laborantza herrikoia,
eta agroindustriak
elikagaien %25-30
landutako lurren 3/4ean**

tzan nagusiak daudelako lehen sektorean ere.

Ikusirik lehen sektoreak geroz eta gazte gutxiago erakartzen dituela, etorkinen presentzia ezinbestekoa ukanen dugu gaur bezala bihar ere. Britainiako Prestavic enpresak irudikatzen duen agroindustriarekin bukatu eta La Ferme de Combreaux edota La Ferme des Monts gardés ekimenei sostengua bideratu beharko lukete, ordea, laborantzarako egitura, sindikatu eta dirulaguntzek. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com

